JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

31. zk. 2006ko martxoaren 15a, asteazkena - Miércoles, 15 de marzo de 2006 nº 31

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.381**

Arabako Biltzar Nagusien Arautegi eta Barne-Gobernurako Batzordeak, 2006ko otsailaren 28ko bileran, araugintza-ahalmen osoz, honako Foru Araua onartu du:

BILTZAR NAGUSIEN 2006. URTERAKO AURREKONTUARI BURUZKO FORU ARAU PROPOSAMENA.

ARTIKULUAK:

LEHENA.- 2006 urtealdirako Biltzar Nagusien Diru-sarrera eta Gastuen Aurrekontua honakoa da:

GASTUAK:

1.- Langileengatiko gastuak: 1.203.932,71
2.- Ondasun arruntak eta zerbitz. erostea: 1.432.724,81
4.- Transferentzia eta dirulaguntza arruntak: 2.237.975,03
6.- Inbertsioak: 276.000,00
Guztira: 5.150.632,55

Diru-sarrerak:

Transferentzia arruntak: 5.127.632,55
Ondare diru-sarrerak: 23.000,00
Guztira: 5.150.632,55

BIGARRENA.-

1.- Arabako Foru Aldundiak sartuko ditu transferentzi arruntak bi epetan, bata urtarrilean eta bestea uztailean.

2.- Araba Lurralde Historikoaren Aurrekontuak betearazteko Foru Arauaren arabera, Foru Aldundiak Biltzar Nagusiei egingo dien transferentzia “Erakundeekiko Konpromiso”tzat joko da (abenduaren 17ko 36/1998 Foru Arauaren 27. artikulua), eta hala izanik, kreditu mota honen ezaugarriak ditu, eta edonola ere, Araba Lurralde Historikoaren urteroko Aurrekontuetan gehitu daitezkeela jasoko zelarik.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.381**

La Comisión de Reglamento y Gobierno Interior de estas Juntas Generales, en sesión celebrada el día 28 de febrero de 2006, con capacidad normativa plena, ha aprobado la siguiente Norma Foral:

PROPOSICIÓN DE NORMA FORAL DE PRESUPUESTO DE LAS JUNTAS GENERALES PARA EL AÑO 2006.

ARTICULADO:

PRIMERO.- El Presupuesto de Ingresos y Gastos de las Juntas Generales para el año 2006 es el siguiente:

Gastos:

1.- Gastos de personal: 1.203.932,71
2.- Compra bienes corrientes y servicios: 1.432.724,81
4.- Transferencias y subvenciones corrientes: 2.237.975,03
6.- Inversiones: 276.000,00
Total: 5.150.632,55

Ingresos:

Transferencias corrientes: 5.127.632,55
Ingresos patrimoniales: 23.000,00
Total: 5.150.632,55

SEGUNDO.-

1.- Las transferencias corrientes se ingresarán por la Diputación Foral de Álava en dos plazos, coincidentes con los meses de enero y julio.

2.- De acuerdo con la Norma Foral de ejecución presupuestaria de los Presupuestos del Territorio Histórico de Álava, la trasferencia de la Diputación Foral a las Juntas Generales tiene la consideración de “Compromisos Institucionales” (artículo 27 de la Norma Foral 36/1998, de 17 de diciembre) y, como tal, participa de las peculiaridades de este tipo de créditos que, en todo caso, figurarían como ampliables en los Presupuestos anuales del Territorio Histórico de Álava.

HIRUGARRENA.- Biltzarkide Taldeentzako, Taldekideen kopuruaren araberako, eta aholkularitza teknikoarentzako Kopuruen zenbatekoak honakoak izango dira:

- Talde bakoitzarentzako Kopuru finkoa: 2.519,06 euro/hil.
- Aulki bakoitzarentzako Kopuru finkoa: 1.113,03 euro/hil.
- Taldekideen kopuruaren araberako Kopurua: 410,88 euro/hil.

Hona hemen Taldeei laguntza teknikoa emateko zehaztutako kontzeptuak:

A) Mahaikideentzako laguntza teknikoa, 31.134,43 euro/urte. Kopuruagatik. Mahaian ordezkariren bat duten Biltzarkide Taldeek, Lehendakariorde edo Idazkari gisa, diru-kopuru hori jasoko dute hauetariko bakoitzarengatik.

B) Laguntza Teknikoa Biltzar Nagusietan lehentasunezko arduraldia duten Prokuradoreentzat: Biltzarkide Talde bakoitzarentzako bi diru-kopuru finkatuko dira eta diru-kopuru bakoitza urteko 31.134,43 eurokoa izango da 2 eta 8 Prokuradorerekin osatutako taldeentzat, eta beste bi diru-kopuru zenbateko berdinarekin 9 eta 16 Prokuradore dituzten Biltzarkide Taldeentzat.

Misto Taldeak gaur egungo osaketarekin, zenbateko bakarra jasoko du.

C) Biltzarkide Taldeentzako laguntza teknikoa taldekide kopuruaren arabera: biltzarkide talde bakoitzarentzat urteko 35.780,52 euroko esleipena finkatu dute laguntza tekniko orokorra izan dezaten. Gainera 4 eta 8 prokuradore bitarteko taldeek esleipen bat izango dute eta 9 eta 16 kide bitarteko taldeek, berriz, 2 esleipen.

Fondo hauek hilero ordainduko dira, Biltzarkide Taldeen beste kopuruekin batera.

Biltzarkide Taldeek nahi duten bezala erabiliko dituzte kopuruok beraien aholkularitza eta laguntza teknikorako programetan, eta banaka hartuta, prokuradore jakin batzuei, edo Mahaian dituzten ordezkariei, egotzi dakieke. Hala erabakiz gero, Ganbarak hauek zuzenean ordainduko ditu Goi Karguen ordainsari gisa, eta Arabako Biltzar Nagusien aurrekontuen kontura izango dira Gizarte Segurantzaren kostu osagarriak eta dagokien legezko kostuak, aukeratuaren egoera pertsonalaren arabera.

A eta B ataletan adierazitako kopuruek, bai prokuradore jakin batzuetarako edo Mahaian dituzten ordezkarientzat badira, bai zuzenean taldeei ematen badizkiete aholkularitza teknikorako programetarako, langileen ordainsariek lege-xedapenen aplikazioen ondorioz dituzten egokitzapen berak izango dituzte.

Mahaia arduratuko da Ganbararen bileretan bertaratu eta joan-etorria egiteagatiko hartukizunak egokitzeaz, ordainsari hauek jasotzeko aukeratutako prokuradoreei dagozkienak, hauen zenbatekoak eta beraien Taldeak egotzi dien jarduera aintzat hartuz.

LAUGARRENA.- Biltzar Nagusietako langile-zerrenda honela geratuko da:

- Goi tituludun 1. Legelaria. A Gradua. (Idazkaritza Nagusiaren Zuzendaria).
- Goi tituludun 1. Legelaria. A Gradua.
- Goi tituludun 1. Dokumentalista. A Gradua.
- Tekniko 1. C Gradua.
- 2 Atezain/Txofer. Bestelako zerbitzuak. D Gradua.
- 6 Administrari Laguntzaile. D Gradua.

Ganbararen Mahaiak dagokion Lanpostuen Zerrenda ontzat emango dagozkion eskuduntzen arabera eta Araudiaren 39.1.2/ artikuluarekin bat etorriz.

BOSGARRENA.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 96. Artikuluan aipatzen diren aldi baterako lanpostuak honakoak dira:

- Biltzarkide Taldeei adskribituriko 6 administrari laguntzaile post

- Lehendakaritzaren idazkaritzan postu 1.

Haien ordainsariak Mahaiak onartuko duen Lanpostuen Zerrendan zehaztuko dira.

SEIGARRENA.-

1.- 2006. urtean zehar, Arabako Biltzar Nagusien langile guztien ordainsariek, Euskadiko foru eta toki administrazioko langileentzat agindutakoaren esparruan ezarri daitezkeen lege eta xedapenek ebazten dituzten aldaketak izango dituzte.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa honakoen kalterik gabe ulertu behar da: ordainsarien egiturak indarrean dagoen araudira egokitze-

TERCERO.- Las cuantías de las Asignaciones a Grupo Juntero y por importancia numérica del Grupo y asesoramiento técnico serán las siguientes:

- Asignación fija a Grupo: 2.519,06 euros/mes.
- Asignación fija a escaño: 1.113,03 euros/mes.
- Asignación por importancia numérica de los Grupos: 410,88 euros/mes.

Se establecen los siguientes conceptos de apoyo técnico a los Grupos:

A) Apoyo técnico a los miembros de la Mesa con un importe de 31.134,43 euros/año. Los Grupos Junteros que tengan un representante en la Mesa, como Vicepresidente o Secretario, percibirán tal cantidad por cada uno de ellos.

B) Apoyo técnico a Procuradores con dedicación preferente a las Juntas Generales: se establecen dos asignaciones por Grupo Juntero por importe cada una de ellas de 31.134,43 euros/año que percibirán aquellos que cuenten de 2 a 8 Procuradores, y otras dos de la misma cantidad/año para los Grupos Junteros que tengan entre 9 y 16 Procuradores.

El Grupo Mixto en su actual composición percibirá solo una de estas cuantías A y B.

C) Apoyo técnico a los Grupos Junteros según el número de sus componentes: se señala una asignación anual de 35.780,52 euros que percibirá cada grupo juntero como apoyo técnico general. Además se añadirá una asignación a los grupos que tengan entre 4 y 8 procuradores y 2 asignaciones a los que tengan de 9 a 16.

El pago de estos fondos se abonará mensualmente, junto con las otras asignaciones de los Grupos Junteros.

Los Grupos Junteros destinarán libremente tales cantidades a sus programas de asesoramiento y apoyo técnico pudiendo atribuirlas, unitariamente consideradas, a determinados procuradores, o a sus representantes en la Mesa, en cuyo caso será la Cámara quien directamente abone las mismas como retribuciones de Altos Cargos, siendo a cargo de los presupuestos de las Juntas Generales de Álava, los coste suplementarios de la Seguridad Social y los legales que procedan, según la situación personal del designado.

Las cuantías señaladas en los apartados A y B tanto si son atribuidas a determinados procuradores o a sus representantes en la Mesa, o son directamente transferidas al grupo para sus programas de asesoramiento técnico, sufrirán las adaptaciones que las retribuciones del personal sufran como consecuencia de la aplicación de disposiciones que les afecten.

La Mesa será la competente para acomodar las percepciones, por asistencias y gastos de locomoción a las reuniones de la Cámara, de los procuradores que fueren designados a percibir estas retribuciones, teniendo en cuenta sus cuantías y la dedicación con que se las atribuyan por su Grupo.

CUARTO.- La plantilla de las Juntas Generales queda constituida de la siguiente manera:

- 1 Titulado superior. Letrado. Grado A. (Director de la Secretaría General).
- 1 Titulado superior. Letrado. Grado A.
- 1 Titulado superior. Documentalista. Grado A.
- 1 Técnico Medio. Grado C.
- 2 Ujieres-Chóferes. Servicios Varios. Grado D.
- 6 Auxiliares Administrativos. Grado D.

La Relación de Puestos de Trabajo correspondiente será aprobada por la Mesa de la Cámara, según las atribuciones que le corresponde de acuerdo con el artículo 39.1.2/ del Reglamento.

QUINTO.- Los puestos de personal eventual a que se hace referencia en el artículo 96 de la Ley de la Función Pública Vasca son los siguientes:

- 6 plazas de auxiliares administrativos adscritos a los Grupos Junteros.
- 1 plaza de secretaría de presidencia.

Sus retribuciones se fijarán en la Relación de Puestos de trabajo que apruebe la Mesa.

SEXTO.-

1.- Durante el año 2006 las retribuciones de todo el personal de las Juntas Generales de Álava experimentará las variaciones que establezcan las leyes y disposiciones aplicables en el marco de lo dispuesto para el personal de la administración foral y local de Euskadi.

2.- Lo dispuesto en el apartado anterior debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones necesarias en las retribuciones com-

aren ondorio diren ordainsari osagarrien eta hauen aurrekontu-kredituen beharrezko egokipenak, eta edukia eta lanpostuen arabera derrigorrezkoak direnak.

ZAZPIGARRENA.- Biltzar Nagusietako Mahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu Ganbarako langileen hizkuntz normalkuntzarako planak betetzeko helburuarekin.

ZORTZIGARRENA.- Aurrekontua betearazteko asmotan, honako erregelak jarriko dira:

a) I. Kapitulua berez zabaldu daitekeenez, artikulu, kontzeptu, partida eta azpipartida guztiek Kapitulu mailan dute behartze-indarra.

b) II. eta VI. Kapituluan behartze-indarra artikulu mailan egingo d

c) IV. Kapituluan behartze-indarra kontzeptu mailan izango da.

BEDERATZIGARRENA.-

1.- Mahaia aurrekontuaren gastuak baimendu eta erabiltzeko eskumena duen organoa da, eta egintza berean aurrekontu kudeaketaren funtzio hauek bete eta ekitaldian zehar beharrezkoak diren kredituak eman, transferitu, eta aldatu ditzake, eta bai Prokuradoreentzat konpentsazio ekonomikoak finkatzetzeko ere Ganbararen Arautegiaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Aldizkako edo errepikatzen diren gastuek bakarrik baimena beharko dute kreditua konprometitzeko, hurrengo epemugetarako Mahaiak eskuhartzea beharrezkoa ez delarik, eta hauen ordainketa hurrenkera zuzenean egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.382**

Arabako Biltzar Nagusietako Arautegi eta Barne Gobernuko X. Batzordeak, 2006ko otsailaren 28an egindako bileran, araugintzako ahalmen osoz, ondoko erabakia hartu zuen:

ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO 1/2006 ZENBAKIKO DEKRETUA BERRESTEKO ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA ARAUDIA AZAROAREN 18KO 22/2005 ETA 23/2005 LEGEEK ONARTUTAKO ALDAKETETARA EGOKITZEN DEN.

Arabako Biltzar Nagusietako Arautegi eta Barne Gobernuko X Batzordeak, 2006ko otsailaren 28an egindako bileran, araugintzako ahalmen osoz, Zerga Premiazko Araugintzako 1/2006 Dekretua berrestea erabaki du, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia azaroaren 18ko 22/2005 eta 23/2005 legeek onartutako aldaketetara egokitzen da. Dekretu hau Diputatu Kontseiluak 2006ko urtarrilaren 31n onartu zuen eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean 19. zenbakian argitaratu zen 2006ko otsailaren 15ean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.364**

**Iragarkia**

Álvaro Iturritxa Vélez de Elburgo jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko bozeramaleak, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa bidali du, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Estatuko Gobernuari berriz eska diezaioten Santa María de Garoña zentral nuklearra ixteko.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Jarduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

plementarias y en sus créditos presupuestarios que se deriven de la adecuación de la estructura retributiva a la normativa vigente y de las que resulten imprescindible en razón al contenido y valoración de los puestos de trabajo.

SÉPTIMO.- La Mesa de las Juntas Generales adoptará las medidas oportunas para la efectiva aplicación de los planes de normalización lingüística del personal de la Cámara.

OCTAVO.- Se establecerán, en orden a la ejecución presupuestaria, las siguientes reglas:

a) Siendo el Capítulo I ampliable por naturaleza, la vinculación de todos los artículos, conceptos, partidas y subpartidas se efectúa a nivel de Capítulo.

b) En el Capítulo II y en el Capítulo VI la vinculación se efectuará a nivel de artículo.

c) En el Capítulo IV la vinculación será a nivel de concepto.

NOVENO.-

1.- La Mesa es el órgano competente para autorizar y disponer los gastos del presupuesto, pudiendo efectuar en un mismo acto estas funciones de gestión presupuestaria y realizar las habilitaciones, transferencias y modificaciones de crédito que sean necesarias durante el ejercicio, así como para fijar las compensaciones económicas para los Procuradores conforme a lo dispuesto en el artículo 19 del Reglamento de la Cámara.

2.- Los gastos de carácter periódico o repetitivo necesitarán únicamente la autorización para comprometer el crédito, no siendo necesaria la intervención de la Mesa para los sucesivos vencimientos, cuya ordenación de pago se efectuará directamente.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.382**

La Comisión X de Reglamento y Gobierno Interior de las Juntas Generales de Álava, en su reunión del día 28 de febrero de 2006, con capacidad normativa plena, adoptó el siguiente acuerdo:

ACUERDO DE CONVALIDACIÓN DEL DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL NÚMERO 1/2006, QUE ADAPTA LA NORMATIVA TRIBUTARIA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA A LAS MODIFICACIONES INTRODUCIDAS POR LAS LEYES 22 Y 23/2005, DE 18 DE NOVIEMBRE.

Las Comisión X de Reglamento y Gobierno Interior de las Juntas Generales de Álava, en su reunión del día 28 de febrero de 2006, con capacidad normativa plena, acordó convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal número 1/2006, que adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava a las modificaciones introducidas por las Leyes 22 y 23/2005, de 18 de noviembre, aprobado por el Consejo de Diputados el día 31 de enero y publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 19, de fecha 15 de febrero de 2006

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.364**

**Anuncio**

Don Álvaro Iturritxa Vélez de Elburgo, Portavoz del Grupo Juntero EAJ-PNV, presenta Moción para debate en Pleno, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava reiteren al Gobierno del Estado la petición de cierre de la central nuclear de Santa María de Garoña.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.365**

**Iragarkia**

Ritxar Bacete González jaunak, Ezker Batua - Izquierda Unida Biltzarkide Taldeko bozeramaileak, Batzordean eztabaidatzeko mozioa bidali du, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien lege proiektu bat onetsi dezaten, Guda Zibilaren eta Frankoren Diktaduraren biktimei onarpena eta ordainketa morala emateko helburuarekin. Biktima horien artean 1976ko martxoaren 3ko biktimak ere egongo lirateke.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Jarduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.366**

**Iragarkia**

EAJ-PNV // EA // EB-IU Biltzarkide Taldeko Bozeramaileek Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa bidali dute, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Unai Romanoren tortura-salaketari buruzko artxiboarekiko desadostasuna eta harekiko elkartasuna erakusteko.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Jarduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.576**

**2006ko martxoaren 13an egin zen 78. Osoko Bilkurako gaizerrenda:**

GAI BAKARRA: 2/2006 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2006rako Aurrekontua gauzatzeari buruzkoa, berrestea. (Espedientea: 07/B/09/0001627).

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 9a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.365**

**Anuncio**

Don Ritxar Bacete González, Portavoz del Grupo Juntero Ezker Batua - Izquierda Unida, presenta Moción para debate en comisión, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava insten a la aprobación de un proyecto de ley que persiga la reparación moral y el reconocimiento de las víctimas de la Guerra Civil y la dictadura franquista, entre las que se incluirían las víctimas del 3 de marzo de 1976.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.366**

**Anuncio**

Los Portavoces de los Grupos Junteros EAJ-PNV // EA // EB-IU presentan Moción para debate en Pleno, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava manifiesten su disconformidad con el archivo de la denuncia por torturas de Unai Romano y su solidaridad con él.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1.576**

**Orden del día de la Sesión Plenaria número 78, que se celebró el día 13 de marzo de 2006:**

ASUNTO ÚNICO: Ratificación de la Norma Foral 2/2006, de 8 de marzo, de Ejecución del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava para 2006. (Expediente: 07/B/09/0001627).

Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.